

**OSKAR TEJEDOR**

Legazpi (1968).

Ingenaria eta Industri Diseinatzailea, Dibulitoon Studio-an hasi zen animazio filmeen produktore bezala, baina berehala gidoigintzara eta dokumentalen errealizazioan murgildu zen.

Hurrengo dokumentalak idatzi eta errealizatu ditu: "Ochumare, Orisha del arco Iris", "Txalaparta, el eco de un pueblo", "Balenciaga, permanecer en lo efímero".

Sari pila jaso ditu "Cuidadores", "Compañeras de viaje", "Cendrillon, en route pour Versailles", "Notas en Movimiento" lanekin.

Aipatzekoa da "En Tránsito" dokumentala, nazioarteko jaialdi ugarietan aukeratuta izan dena, Espainian, Mexikon, AEBetan eta Italian ere, eta hainbat sari ezagun irabazi dituena.

Bere dokumentalik berriena, "Director Z. El vendedor de ilusiones" da.

Fikzioan, hurrengo laburmetraiak errealizatu ditu: "Les trois pommes", "Out of Marruecos", "El juego de Caín" (gidoilari gisa soilik), "Juguetes", "Atrapados", "The Abbey" eta "Medeo".

LAU HAIZETARA Nazioarteko Koproduziorako Eztabaida-lekua zuzendu eta koordinatu du Donostiako Zinemaldian haren lehenengo hamar urteetan.

Aholkulari eta proiektuen moderatzaile bezala egin du lan: Miarritzeko ikus-entzunezko programetako nazioarteko jaialdian (FIPA-n), Cubako zinema eskola ezagunean (EICTV), Mexikoko ANIMASIVO-n, eta Panamako MVO zentroan.

Aldi berean, eskolak eman ditu ikastetxeetan, EITBn, eta Donostiako CENTA eskolako Dokumental Proiektuen Garapenerako Masterrean.